



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko azaroaren 28a

43. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteek ohitura osasungarriak izateko plana abiaraz dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan emanen den hiritar- nahiz tributu-hezkuntzako programa bat susta dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateekin, gizarte entitateekin nahiz era guztietako entitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa har dezan, babesik gabeko adingabeak erabat gizarteratzeko prozesuak abiarazteko. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau bat taxutu eta susta dezan, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasun arloko teknikariei osasun arloko gainontzeko langileentzako ezarritako baldintza beretan lanbide-karrera aitortzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Iruñerriko Mankomunitatearekin edo hura kudeatzen duen sozietatearekin –Servicios de la Comarca de Pamplona SA–, ura Nafarroako Ubidearen bidez emateko. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea aldatzearen legegintzako ekimen bat sustatze aldera Estatuko Lankidetzaz Batzordearekin hartutako konpromisoari buruzkoa. María Virginia Magdaleno Alegría andreak egin du (9. or.).

- Galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, “El Vergel” zahar-etxeko toki hutsei buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 16/2019 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroan hutsik dauden etxebizitzaren erroldari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Modou Khadim Sow Ribaforadako bizilagunaren kanporaketa lasterrari eta Arartekoaren ebazpenari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Iruñeko Lezkairu auzoko familia bat etxegabetzeari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Rozalejoko Markesaren jauregiaren okupazio ilegalari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoetarako bateriak egiteko txinatar kapitaleko fabrika bat ezartzeko aukerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Corellako EDAR enpresaren egoera judizialari buruzkoa. María Elena Llorente Trujillo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarriko arauak ezartzen dituen eta eskualdeko nahiz tokiko gazteriaren kontseiluen printzipio orokorrak onesten dituen Foru Dekretuaren proiektuaren egungo egoerari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei Errenta Bermatuaren gaineko azterlan bat egiteko aginduari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, gizarteratze edo larrialdi sozialeko prozesuak babesteko aparteko laguntzak eta laguntzak aldatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, eremu ez euskalduneko ikastetxeetan D ereduaren ikasten duten ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteek ohitura osasungarriak izateko plana abiaraz dezan.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gazteek ohitura osasungarriak izateko plana abiaraz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Haurren obesitatea Europako epidemia berria da. Espainia Europar Batasuneko herrialdeen sailkapeneko bosgarren lekuan dago, zazpitik hamahiru urte bitarteko haurren % 32k gehiegizko pisua eta obesitatea dutelako. Datu horiek berriki argitaratu dira JAMA Pediatrics aldizkariako artikulu batean.

Aipatu azterlanak frogatu duenez krisi finantzarioetan haurren elikadura txarragoa izaten da eta familiek produktu fresko gutxiago eta ultrapro-

zesatu gehiago erosi ohi dituzte. Gainera, kirol jarduera gutxiago egiten dute, ondorioa izanik adin txikikoen pisu igoera. Hori gertatzen da dieta mediterranea Gizateriaren Ondare deklaraturata dagoenean eta OMEren gomendioa denean egunero 60 minututan aritzea ariketa neurrizko/indartsuan.

Haurren obesitateak osasuneko berehalako arazoak sorrarazten ditu, besteak beste, errendimendu akademiko baxua, estigma soziala, eskolajazarpena, autoestimua defizita, depresioa eta haurren bizi-kalitatearen narriadura. Halaber, epe luzerako osasuneko arazo garrantzitsuak ekartzen ditu, esate baterako, helduen obesitatea, 2. motako diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak edo tumoreak edukitzeko arriskuaren areagotzea.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, Erkidegoko Osasun Behatokiaren bidez, Gazteria eta Osasuna 2014ko inkestan, frogatu zuen sedentariismoa areagotu dela eta pantailekiko esposizioak leku handia duela asteburuan egiten diren jardueretan. Esposizio hori 2007an 2,7 ordukoa izatetik 2014an 4 ordukoa izatera igaro zen. Gainera, ikerketak aurkitu zuen Nafarroako gazteriaren herenak baino gehiagok alkohol kontsumo intentsiboa egiten duela eta bostenak baino gehiagok egunero erretzen duela.

2017ko azterlan batek frogatu zuen Nafarroan 2 urtetik 14 urtera bitarteko haurren % 28k gehiegizko pisua edo obesitatea duela.

Horregatik guztiagatik, uste dugu osasuneko eta osasun publikoko arazo hori premiazkoa dela eta ahalik lasterren abiarazi behar dela gazteek ohitura osasungarriak izateko plan bat.

Erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ahalik lasterren abiaraz

dezan gazteek ohitura osasungarriak izateko plan bat.

2.- Nafarroako Parlamentuak premiatzen du bizitzako errutina osasungarriei dagokienez administrazio publikoak ohiturak susta ditzan eta ikastetxeetan hezkuntza programak egin daitezen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo Mateo, Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Mikel Buil García eta Marisa De Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan emanen den hiritar- nahiz tributuzko hezkuntzako programa bat susta dezan.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ikastetxeetan emanen den hiritar- nahiz tributuzko hezkuntzako programa bat susta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzorric Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetan emanen den hiritar- nahiz tributuzko hezkuntzako programa bat susta dezan.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren helburu nagusietako bat da zerga betebeharren betezea hobetzea. Zerga iruzurraren aurka Borroka-

tzeko 2016-2019 aldirako Planaren helburuen erdigunean iruzurraren kontrola eta prebentzioa daude eta funtsezko alderdi bat da hiritar- nahiz tributuzko hezkuntzaren arloa, zeinaren lehentasunezko helburua baita zerga-erantzukizunaren aldeko eta iruzur-jokabideen aurkako jarrerak eta balioak transmititzea.

Proposamen honen asmoa da Nafarroako ikastetxeetan bultzatzea zerga-betebeharrak modu boluntarioan betetzeri buruzko kontzientziazio-programak, ikasleak kontzientziazitzeko zerga-betebeharrak betetzeaz eta zerga-iruzurrak dakartzan ondorio guztiz kaltegarriez eta, halaber, funts publikoen erabileraren gaineko ezagutza sustatzeko: funts horien bidez ematen diren zerbitzuak eta Nafarroaren araubide fiskala eta gure hitzarmen ekonomikoa ezagutzea.

Halatan, Nafarroako Gobernuak Zerga Ogasunak deskribatzen duenaren arabera, hiritar- nahiz tributuzko hezkuntzak bilatzen du “zerga-erantzukizunari buruzko eskema kontzeptual batzuk helaraztea herritar gazteenei, beren zergadunrolean sartzen lagunduko dietenak, argiago izan dezaten gizarte demokratiko batean jokabide logiko eta arrazoizko bat zer den. Egiatzko zerga-kontzientzia bat sortzeko onartu beharra dago ezen, gizarte dinamiko orotan gertatzen diren zerga-aukera eta -eredu aldagarriak gorabehera, badirela zenbait irizpide justifikatzen dutenak beharrian publiko eta komunak modu solidarioan finantzatzea”.

2019ko ekainean, Nafarroako Gobernuak “Ikasgela Fiskala Nafarroa” webgunea aurkeztu

zuen, foru erkidegoko irakasleei zuzendua: espazio birtual bat da, non irakasleek 10 urtetik goitiko ikasleei zuzendutako hezkuntza-materialak aurki ditzaketen, zerga-erantzukizuna sustatzea helburu; orain, eduki horiek ikasgeletara eramatea falta da, egiaz eman daitezten.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du departamentuen arteko akordio bat bultzatuz, ikasgeletan ematekoa den hiritar- nahiz tributu-hezkuntzako programa bat sustatzea helburu.

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean.

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateekin, gizarte entitateekin nahiz era guztietako entitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa har dezan, babesik gabeko adingabeak erabat gizarteratzeko prozesuak abiarazteko.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki entitateekin, gizarte entitateekin nahiz era guztietako entitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa har dezan, babesik gabeko adingabeak erabat gizarteratzeko prozesuak abiarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

MENA akronimoaren gibelean 18 urtetik beherako neska-mutiko eta gazte atzerritarren multzo bat dago, zeinen egoeraren ezaugarri nagusia baita gurean egotea familiako heldu bat ondoan izan gabe, zeina haiek zaintzeaz arduratuko baita,

haien oinarritzko beharri zailen zaila bermatuko duena.

Definizio horretatik eta Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan jasotzen diren printzipioak nahiz haurrak babesteari buruzko lege nazionalen ezarritakoa onartzetik abiatuta, bakarrik dagoen adingabe migratzaile bat Espainiako edozein tokitara heltzen denean babes-neurriak abian jarri behar dituzte tokiko agintariak, horiek baitira lurralde bakoitzean haurrak babesteko ardura dutenak.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrek Espainiako lurraldera heltzea ez da jada fenomeno puntual bat; izan ere, Espainian Haurrak Babesteko Sistemaren barruan lehentasunez artatu beharreko kolektibo bat bihurtu da adingabe horiena. Halere, korrika eta presaka taxutuz joan da horien babes juridiko, polizial, asistentzial eta psikologikoa, halako moduan non batzuetan ez baita batera egokia izan horien berriazko beharri zailen eta inguruabarrei dagokienez.

Arartekoaren 2018ko txostenean jasotakoaren arabera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrena kolektibo bereziki zaurgarria da, arriskua dutelako sarri muturreko indarkeria-adierazpideak pairatzeko, gizakien salerosketaren, gehiegikeria fisiko, psikologiko eta sexualen biktima izateko Europar Batasunera iritsi aurretik edota ondoren. Gauzak horrela, eta adingabe eta atzerritar izateagatik muturreko zaurgarritasun-egoera bikoitza bizi dutenez, txosten horrek bere kezka agertzen du adingabearen interes gorenaren aurkako interpretazioak egin litezkeelako, eta behin eta berriro

azpimarratzen du “atzerritarrak baino lehenago adingabeak direla”.

Zoritxarrez, eskuin muturreko indar politikoak eta diskurtso arrazista eta xenofoboak dauzkaten beste talde batzuk neska-mutiko eta nerabe horiek kriminalizatzen ari dira, errealitatearekin inolako zerikusirik ez duten salaketa faltsu eta larriak baliatuta horretarako, adingabe horien aurkako eraso fisikoak egiteraino zenbaitetan. Oro har, gure herrira beren bizitzak hobetzeko aukera baten bila etortzen diren adingabeak dira, eta jarrera oso ona izan ohi dute beren buruak prestatzeko, gizarteratzeko eta laneratzeko. Egiazko arriskua etor liteke diskurtso arrazista horien eraginez gure erakundeek adingabe horiek bazter utziko balituzte; hori, legez kanpokoa eta haurren eskubideen konbentzioaren kontrakoa izateaz gain, adingabe horien muturreko gizarte-bazterketari atera irekitzea izanen litzateke. Gizarte-bazterketak bai ekar litzake jokabide disruptiboak, egoera horretan dagoen edozein pertsonaren kasuan gertatzen den bezala, zein ere diren bere jatorria, nazionalitatea edo egoera.

Alegia, haur eta adingabe horiek zeharo gizarteratzeko politikak abian jartzea da biderik egokiena –betekizun etiko eta legal bat izateaz gain– adingabe horien etorrera denontzako –bai adingabe horientzako, bai horiei harrera egiten

dien gizartearentzako– oparotasun handiagobaten mesederako izan dadin.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du toki entitateekin, gizarte entitateekin nahiz era guztietako entitateekin lankidetzan aritzeko konpromisoa har dezan, babesik gabeko adingabeak erabat gizarteratzeko prozesuak abiarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adingabe horiek erabat gizarteratzeko garatu beharreko programak garatzen jarrai dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du jarrera arrazista, xenofobo nahiz babesik gabeko adingabeen kriminalizazioa bilatzen duen oro.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan adingabe horiek autonomia erkidegoen artean modu ordenatu eta orekatuan banatzeko, bai eta gizarteratzeko plan nazional bat abian jar dezan ere.

Iruñean, 2019ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau bat taxutu eta susta dezan, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasun arloko teknikariei osasun arloko gainontzeko langileentzako ezarritako baldintza beretan lanbide-karrera aitortzeko.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arau bat taxutu eta susta dezan, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasun arloko tek-

nikariei osasun arloko gainontzeko langileentzako ezarritako baldintza beretan lanbide-karrera aitortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da arau bat taxutu eta susta dezan, erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei eta osasun arloko teknikariei osasun arloko gainontzeko langileentzako ezarritako baldintza beretan lanbide-karrera aitortzeko

**Zioen azalpena**

Nafarroako Foru Komunitateko egungo lanbide-karreraren sistema Osasun Departamentuari atxikitako langileen berriazko araubidea ezartzen duen 11/1992 Foru Legeak ezarri zuen Osasun Departamentuko nahiz haren mendeko erakunde autonomoetako osasun arloko langileei dagokienez.

Maiatzaren 9ko 7/2017 Foru Legeak, berriz, lanbide karreraren sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoei atxiki gabeko beste osasun langile batzuentzat zabaldu zuen.

Hortaz, eskubidea zabaldu zaie Nafarroako Gobernuako departamentu guztietako eta haren

erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo guztiei, baldin eta lanpostua jabetzan badute eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean aurreikusitako "Fakultatibo espezialistak" edo "Bertze osasun fakultatiboak" izeneko estamentuetan lanpostuaren koadramenduan sartu ahal izateko osasun titulazioetako edozein edukitzea.

Baina eskubide hori ez zaie zabaldu osasun arloko langile guztiei, aitortza horretatik kanpo geratu direlako osasun arloko teknikariak eta erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariak.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharrekoak egin ditzan, osasun arloko teknikariei eta erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikariei lanbide-karrera aitordakien, osasun arloko gainontzeko langileentzat ezarritako baldintza bertsuetan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo Mateo, Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Mikel Buil García eta Marisa De Simón Caballero

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hitzarmen bat sina dezan Iruñerriko Mankomunitatearekin edo hura kudeatzen duen sozietatearekin –Servicios de la Comarca de Pamplona SA–, ura Nafarroako Ubidearen bidez emateko.**

**ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hitzarmen bat sina dezan Iruñerriko Mankomunitatearekin edo hura kudeatzen duen sozietatearekin –Servicios de la Comarca de Pamplona SA–, ura Nafarroako Ubidearen bidez emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikuluan ezar-tzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du:

Ebroko Ur Konfederazioko lehendakariaren 2004ko apirilaren 14ko Ebazpenaren bidez Irati ibaiko ur publikoen aprobetxamendu bat eman zitzaion Nafarroako Gobernuari, Itoizko urtegian, Itoitz-Longidako udal-mugartean (Nafarroa), Nafarroako Foru Komunitateko zenbait udalerritan bizi-lagunen eta industriaren hornidurarako.

Iruñerriko Mankomunitateak hornidurarako ura erabiltzen du aprobetxamendu horretaz baliatuz, Nafarroako Ubidearen bitartez, eta, horretarako, 2006ko ekainaren 14an hornidura kontratu bat izenpetu zuen Canal de Navarra SA sozietate publikoarekin, Mankomunitatearen Servicios de la Comarca de Pamplona SA sozietatearen bidez.

Iruñerriko Udalak erabil dezakeen uneko gehieneko ur-emia ezarri zen hitzarmen horren hirugarren klausulan, azpiegitura zehaztu zenean hornidura arloan zegoen plangintzan jasotako aurreikuspenetan oinarrituta; 1.000 litro segundo-koa da uneko gehieneko emaria eta urteko gehie-neko bolumena, berriz, 22.54 Hm<sup>3</sup>-koa.

Iruñerriko Mankomunitateak Canal de Navarra SA sozietate publikoari jakinarazi dio emari hori bere egungo eta etorkizuneko beharren gainetik dagoela eta tarifan eragin handia duela.

Nafarroako Foru Komunitateari interesatzen zaio Irati ibaian, Itoizko urtegian dagoen ur publi-koen aprobetxamendu hori mantentzea hasieran eman zitzaion urteko gehieneko bolumen horrekin, Nafarroako Foru Komunitateko zenbait udalerritan bizilagunen eta industriaren hornidurarako erabil-tzeko; horregatik, bidezkotzat jotzen du hornidura kontratu horren tarifak dakarren kostua diruz laguntzea, zati bat ordainduz. Arestian esan beza-la, kontratu hori Iruñerriko Mankomunitatea-Servi-cios de la Comarca de Pamplona SAk eta Canal de Navarra SA sozietateak izenpetu zuten Itoizko

urtegiko ura hornitzeko Nafarroako Ubidearen bidez.

Indarreko 2019ko Gastuen Aurrekontuan ez dago krediturik jarduketa hori finantzatzeko, eta, beraz, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2004 Foru Legearen 48. artikuluan xedatutako-arekin bat, beharrezkoa da kreditu berezi bat ematea horretarako, 544.158 euroko zenbatekoa duena.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirila-ren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte beran-dutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indar-dunaren kargura egin behar bada eta dagoen kredi-tua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabe-ra, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasu-neko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kredi-tu berezi bat onestekoa.

Bestalde, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17. artikulua aurrei-kusten du zuzenean ematen ahalko direla diru-laguntzak Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruz-ko Foru Legean berariaz izendatuta daudenean, baita horiek ematea lege mailako arau baten bidez ezartzen denean ere.

Aurrekoa kontuan izanik, proposatzen da honako erabaki hauek hartzea:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen bat sina dezan Iruñerriko Mankomunitatearekin edo hura kudeatzen duen sozietatearekin –Servicios de la Comarca de Pamplona SA–, ura Nafarroako Ubi-dearen bidez emateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen hori finantza-tzeko 544.158 euroko kreditu berezia, 2019ko aurrekontu orokorretan sartu beharrezkoa, emateko lege proiektua igor dezan Legebiltzar honetara.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique



---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea aldatzearen legegintzako ekimen bat sustatze aldera Estatuko Lankidetzaren Batzordearekin hartutako konpromisoari buruzkoa.**

*MARÍA VIRGINIA MAGADALENO ALEGRÍA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Virginia Magdaleno Alegría andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea aldatzearen legegintzako ekimen bat sustatze aldera Estatuko Lankidetzaren Batzordearekin hartutako konpromisoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Virginia Magdaleno Alegría, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoa-

ren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilari Javier Remírezen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Estatuko Administrazio Orokorrerako Lankidetzaren Batzordearen eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean akordio batera iritsi da, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea onetsi eta gero Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeko garaian sortu diren arazoak bideratzeko.

Foru Komunitateko Gobernuak zer konpromiso hartu du Estatuko Lankidetzaren Batzordearekin Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legea aldatzearen legegintzako ekimen bat sustatze aldera? Zer dela-eta hartu da konpromiso hori?

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Virginia Magdaleno Alegría

## **Galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa.**

### *ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer neurri hartu du eta zer neurri hartuko du nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriari aurrea hartzeari begira?

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **Galdera, “El Vergel” zahar-etxeko toki hutsei buruzkoa.**

### *ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako galdera, “El Vergel” zahar-etxeko toki hutsei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gauza jakina da Nafarroako Gobernuak zuzenean kudeatzen duen “El Vergel” zahar-etxean 10 lanpostu inguru daudela bete gabe, nahiz eta eskaria egon badagoen. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Eskubide Sozialetako Departamentuak zer balorazio egiten du egoera horri buruz eta Gobernuak zer neurri hartuko du egoera konpontzeko?

Iruñean, 2019ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Isabel Aramburu Bergua

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Isabel Aramburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erre-

## **Galdera, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 16/2019 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 16/2019 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroan lagun egiteko animaliak babesteari buruzko apirilaren 4ko 16/2019 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapena?

Iruñean, 2019ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Nafarroan hutsik dauden etxebizitzaren eroldari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan hutsik dauden etxebizitzaren eroldari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer aurreikuspen darabilzue Nafarroan hutsik dauden etxebizitzaren erolda gaurkotzeari eta bukatzeari buruz?

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Modou Khadim Sow Ribaforadako bizilagunaren kanporaketa lasterrari eta Arartekoaren ebazpenari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, Modou Khadim Sow Ribaforadako bizilagunaren kanporaketa lasterrari eta Arartekoaren ebazpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santos Itoiz jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Zer balorazio egiten duzu Modou Khadim Sow Ribaforadako bizilagunaren kanporaketa lasterrari eta Arartekoaren ebazpenari buruz?

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean.

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Galdera, Iruñeko Lezkairu auzoko familia bat etxegabetzeari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko Lezkairu auzoko familia bat etxegabetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako kontseilari José María Aierdi jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zure departamentuak zuzemenik egin al du edo eginen al du ekidite aldera Iruñeko Lezkairu auzoko familia bat etxegabetzea, zeina azaroaren 21erako aurreikusten baitzen eta, hasiera batean, azaroaren 25erako atzeratu baita?

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Galdera, Rozalejoko Markesaren jauregiaren okupazio ilegalari buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko galdera, Rozalejoko Markesaren jauregiaren okupazio ilegalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan

eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari:

1.- Hasia al du Nafarroako Gobernuak ekimenen bat argitzeko zergatik Zerbitzu Juridikoek — beraiek baitziren zuzentzen zituztenak Iruñeko 4. instrukzio epaitegian jarraitzen ari ziren delitu ari-nengatiko 2017ko 2181 zenbakiko prozedura juridikoaren jarduketak, Rozalejoko Markesaren Jauregiaren lege kontrako okupazioari zegozkionak— ez zituzten aurkeztu ahal ziren froga guztiak, eta zergatik ez zitzaien epaiketarako zitaziorik egin identifikazioetan parte hartu zuten foruzainei, baizik eta beste batzuei, hartara zigor-epaia lor zedin eragotziz?

2.- Halaber, gauza bera egin al da Foruzaingoan, epaian egiaztatu denean ezen amaierako kanporatzea egin zenean kateatuta zeuden pertsonak identifikatzeko diligenzia guztietan gaizki jarri zela eraikinaren helbidea, eta horren ondorioz ezinezkoa izan zela zigorra jartzea, diligenzia horiek ezin izan baitziren hartu frogatzat?

Iruñean, 2019ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoetarako bateriak egiteko txinatar kapitaleko fabrika bat ezartzeko aukerari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan ibilgailu elektrikoetarako bateriak egiteko txinatar kapitaleko fabrika bat ezartzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen aldetik honako hau jakin nahi dut Nafarroan ibilgailu elektrikoetarako bateriak egiteko txinatar kapitaleko fabrika bat ezartzeko aukerari buruz:

Lehena: Espainiako Gobernuak kasuko ministroarekin izandako kontaktuei buruko informazioa eta, kasua bada, hori dela-eta izandako kontaktuen edukia.

Bigarrena: txinako enpresaren ordezkariekin izandako kontaktuei buruko informazioa eta,

kasua bada, hori dela-eta izandako kontaktuen edukia.

Hirugarrena: Egindako zuzemenean balorazioa, mahai gainean jarri diren balizko kokalekuak eta Nafarroako Gobernuak darabiltzan aurreikuspenak.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, Corellako EDAR enpresaren egoera judizialari buruzkoa.**

*MARÍA ELENA LLORENTE TRUJILLO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Elena Llorente Trujillo andreak aurkezturiko galdera, Corellako EDAR enpresaren egoera judizialari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Elena Llorente Trujillo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Corellako EDAR enpresaren egoera judiziala, irekita dauden prozesuak (edo salaketak) zehaztuta.

Iruñean, 2019ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Elena Llorente Trujillo

**Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko arauak ezartzen dituen eta eskualdeko nahiz tokiko gazteriaren kontseiluen printzipio orokorrak onesten dituen Foru Dekretuaren proiektuaren egungo egoerari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko arauak ezartzen dituen eta eskualdeko nahiz tokiko gazteriaren kontseiluen printzipio orokorrak onesten dituen Foru Dekretuaren proiektuaren egungo egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aur-

kezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Aurreko legegintzaldian hasi zen izapidetzen, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren ekainaren 19ko 43/2017 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko arauak ezartzen dituen eta eskualdeko nahiz tokiko gazteriaren kontseiluen printzipio orokorrak onesten dituen Foru Dekretuaren proiektua Proiektua 2018ko ekainaren 25etik irailaren 15era bitarte egon zen jendaurrean. Hori dela-eta, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zertan da foru dekretuaren proiektua?

- Zergatik gerarazi da prozedura?

- Zenbat iradokizun jaso ziren eta zer eduki jaso ziren?

- Zer aurreikuspen darabilzue dekretua onesteari begira?

- Ba al dago Gobernu Irekiaren Atarian egun jarrita dagoen testua aldatzeko asmorik?

Iruñean, 2019ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei Errenta Bermatuaren gaineko azterlan bat egiteko aginduari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei Errenta Bermatuaren gaineko azterlan bat egiteko aginduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei errenta bermatuari buruzko azterlanik egin dezaten agindu al zaie?

2. Hala baldin bada, zer lan da egin behar dutena?

3. Kontuan hartu al da horrek zer lan-zama ekarriko dien Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei?

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, gizarteratze edo larrialdi sozialeko prozesuak babesteko aparteko laguntzak eta laguntzak aldatzeari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, gizarteratze edo larrialdi sozialeko prozesuak babesteko aparteko laguntzak eta laguntzak aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Eskubide Sozialetako Departamentuak ba al du gizarteratze edo larrialdi sozialeko prozesuak babesteko aparteko laguntzak eta laguntzak aldatzeko asmorik?

2. Hala baldin bada, zertan aldatuko dira laguntza horiek?



3. Aldaketa horrek eraginik izanen al du Oinarriko Gizarte Zerbitzuak finantzatzeko Foru Dekretuan?

4. Hala baldin bada, aldaketa horrek zer eragin izanen du finantzaketa horretan? Eragin horren xehakapena jaso nahi dut.

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzaz-hitzarmenari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko azaroaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzaz-hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu daitezkeen eta idatzizko erantzuna eman diezaien Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak:

Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzaz-hitzarmen bat dago, 8/2005 Foru Legean ezarritakoa betez. Kudeatzaile horrek aseguru-etxerik gehienak biltzen ditu. Hi-

tzarmenaren arabera, Kudeatzailea behartuta dago Nafarroako Gobernuari ordaintzera sute-seguruen prima guztien % 5 gehi aurreko urtean suteen arloan bildutako arrisku anitzeko aseguruaren primen % 50 aplikatuz heldu den dirukopurua.

Hitzarmen hori, 2012an sinatu baitzen, urte urte luzatzen ahal da baldin eta aurretiaz salatzen ez bada. Talde parlamentario honek daukan azken informazioaren arabera, 2017ko polizen kitapenari esker 2.709.847,18 euro bildu zituen Nafarroako Ogasunak, baina horrek ez du osorik isla zuzenik izan Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuen aurrekontuan, nahiz eta dirukopuru hori handia den eta hitzarmenaren xedea honako hau den: «Ekarpen berezia, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak ezartzeko, hobetzeko eta handitzeko».

Hori ikusirik:

1.- 2018an zenbat diru heldu zen Nafarroako Gobernuaren eta Suteak Itzaltzeko Zerbitzuetarako Hitzarmenen Kudeatzailearen arteko lankidetzaz-hitzarmenetik?

2.- Nafarroako Gobernuak zenbat diru jaso du azken zortzi urteotan hitzarmen hori dela-eta? Urteko dirukopuru horretatik zenbat bideratu da Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzurako edo Nafarroako Larrialdietako Agentzia zeritzonerako?

Iruñean, 2019ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## Galdera, eremu ez euskalduneko ikastetxeetan D ereduan ikasten duten ikasleei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro González Felipe jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eremu ez euskalduneko ikastetxeetan D ereduan ikasten duten ikasleei buruzkoa. Galdera 2019ko irailaren 20ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urriaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide izan eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen

Pedro González Felipe jaunak, 10-19/PES-00070 informazio-eskaera egin du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

1. “Eremu ez-euskalduneko ikastetxeetan D ereduan ikasten duten ikasleen eta herri bakoitzeko taldeen kopurua” emateko eskatu zaigunez, ondoren “Herri bakoitzeko talde kopuruaren zerrenda xehakaturia, hezkuntza-mailaren eta ikasle-kopuruaren arabera” ematen dugu. Zerrenda une honi dagokio (matrikulari buruzko 2019ko urriaren 8ko datuak), eremu ez-euskalduneko, eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko datuak jasotzen ditu:

Herria	IKASTETXEA	Etap	Ikasmila	ML BD	
				Ikasleak	Taldeak
Allo	Alloko La Cruz HLHIPa	HH	3 urte	2	
		HH	4 urte	4	
		HH	5 urte	5	1
		Guztira	Guztira	11	1
Barasoain	Barasoaingo M. Azpilcueta HLHIPa	HH	3 urte	1	
		HH	4 urte	5	
		HH	5 urte	2	1
		Guztira	Guztira	8	1
Caparroso	Caparrosoko V. Soto HLHIPa	HH	3 urte	3	
		HH	4 urte	8	1
		HH	5 urte	4	
		LH	LHko 1.a	5	1
		Guztira	Guztira	20	2
Castejón	Castejongo 2 de Mayo HLHIPa	HH	3 urte	8	
		HH	4 urte	3	1
		Guztira	Guztira	11	1
Noain	Noaingo San Miguel HLHIPa	HH	3 urte	19	1
		HH	4 urte	21	1
		HH	5 urte	18	1
		LH	LHko 1.a	17	1
		LH	LHko 2.a	16	1
		LH	LHko 3.a	24	1
		LH	LHko 4.a	24	1
		LH	LHko 5.a	16	1
		LH	LHko 6.a	18	1
Guztira	Guztira	173	9		

Herria	IKASTETXEA	Etapa	Ikasmaila	ML BD	
				Ikasleak	Taldeak
Lodosa	Lodosako A. Mnez. HLHIPa Baigorri HLHIPa	HH	3 urte	6	
		HH	4 urte	4	
		HH	5 urte	3	1
		LH	LHko 1.a	6	
		LH	LHko 2.a	5	1
		<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>24</b>	<b>2</b>
Azkoien	Azkoien J. B. Irurzun HLHIPa	HH	3 urte	1	
		HH	4 urte	4	
		HH	5 urte	5	1
		<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>10</b>	<b>1</b>
Sesma	Sesma V. Nieves HLHIPa	HH	3 urte	1	
		HH	4 urte	3	
		HH	5 urte	1	
		LH	LHko 1.a	1	1
		<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>1</b>

263	18
-----	----

2. Ez dago eskuragarri erreferentziako ikasleen garraiorako eta jantokirako laguntzei buruzko gastuaren aurreikuspena, zeren eta 2019-20 ikasturterako garraioko eta jantokiko banakako laguntzak eskatzeko epea zabalik baitago urriaren 11ra arte.

Eskaerak ikastetxeetan aurkezten dira, eta horiek, epea ixten denean (2019ko urriaren 11n), Hezkuntza Departamentuko Kontratazioaren, Zerbitzu Osagarrien eta Koordinazio Administrazio

boaren Atalari bidaltzen zaizkio. Jasotako dokumentazioa aztertu, eskaerak zuzentzeko eskatu eta haiek ematen diren ala ez baloratzen du atal horrek; horrenbestez, ez dugu eskatutako informazioa edukiko azaroaren erdi parera arte, gutxi gorabehera.

Iruñean, 2019ko urriaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

